



GOBERNU BILERA

Prentsa-Txostena
Erabaki nagusiak

CONSEJO DE GOBIERNO

Dossier de Prensa
Acuerdos destacados

Vitoria-Gasteiz, 2018ko ekainak 19

Vitoria-Gasteiz, 19 de junio de 2018

Lehendakaritza

EUSKAL ERAKUNDEEK BERDINTASUNEAN IZANGO DUTEN IBILBIDE ORRI BERRIA ONARTU DU JAURLARITZAK

- **Planak ekonomiak eta gizarte antolakuntza eraldatzeko ardatz bat jasotzen du, emakumeentzako enplegu hobea eta zaintza sozialki baloratzearen aldekoa**
- **Jaurlaritzako sailek, diputazioek eta aldundiek Berdintasun alorrean izan beharreko helburuak zehazten ditu planak**

Gobernu Kontseiluak Emakume eta Gizonen Berdintasunerako VII Plana onartu du gaur. VII. Planaren helburua, funtsean, esku hartzeko ildo eta jarraibideak zehaztea da, euskal herri-aginteez emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan izango duten jardura zuzentzeko. VII. Berdintasun Plana Eusko Jaurlaritzaren XI Legegintzaldiko 15 Plan Estrategikoetako bat da eta Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legeak ezarritako lege-agindu bati erantzuten dio, zeinetan zehazten den Legegintzaldi bakoitzaren hasieran Berdintasun Plan bat onartuko den.

Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako VII. Planaren xedea botere publikoak gidatzea da, bizitzaren eremu guztietan emakumeen eta femeninitasunaren mendekotasuna sostengatzen eta justifikatzen duten balioak. Balio aldaketa hori nahitaezkoa da giza garapen jasangarrirako, eta beste balio batzuk sortzea eta finkatzea eskatzen du, androzentrismoak, sexismoak eta matxismoak zeharkatu gabeak.

Planak lau esku-hartze eremu ditu, eta hauen barnean 13 programa, 37 helburu estrategiko eta 150 helburu operatibo. Lau esku-hartze eremu dira: Gobernu ona (berdintasunaren aldeko gobernantza indartzeko), Emakumeen ahalduntzea (ahalduntze pertsonala, kolektiboa eta parte hartze politiko eta sozialak indartzeko), Ekonomiak eta gizarte-antolakuntza eraldatzea (emakumeentzako lanpostu hobek eta zaintzaren onarpen soziala jasotzen dituen), eta Emakumeen aurkako indarkeriarik gabeko bizitzak (prebenzioa, atentzioa eta emakumeen arreta eta berronartzeari buruzko programekin).

GOBERNU ONA

15 helburu ditu bost programetan antolatuta. Konpromiso politikoa non berdintasunaren aldeko borondate politikoa zehaztu eta bideragarri egiten den araudi espezifikoa, aurrekontuak, plangintza eta berdintasunerako organo eta unitate administratiboak sortuz eta indartuz; Berdintasunerako trebakuntza, administrazio publikoetako langile guztiek, baita politikariek ere, behar besteko ezagutza izan dezaten beren esku-hartzeetan genero-ikuspegia txertatzeko; Genero-ikuspegia lan-prozeduretan, prozesu eta prozedura administratiboak tresna erabilgarriak izan daitezzen berdintasuna lortzeko; Koordinazioa eta elkarlana, berdintasunari zeharka hel dakion administrazioaren arlo eta maila

guztietan; eta Parte-hartzea eta eragina, herritarren ahotsa, batez ere emakumeena, presente egon dadin politika publikoen diseinuan.

EMAKUMEEN AHALDUNTZEA

VI planaren ildotik, VII planak emakumeen ahalduntzea bultzatzeko helburua du bi programen bitartez: Emakumeen ahalduntze pertsonalari eta kolektiboari laguntzea, feminismoak duten garrantzia azpimarratuz, emakumeen autonomia, autoestimua, genero-kontzientzia, osasuna eta auto-zaintza sustatuz, baliabideak hobetuz; eta Emakumeen ahalduntze sozialari eta politikoari laguntzea, emakumeen parte-hartze soziala sustatuz, eremu eta gune guztietan, eta erabaki guneetan emakumeen presentzia handituz.

EKONOMIAK ETA GIZARTE ANTOLAKUNTZA ERALDATZEA, ESKUBIDEAK BERMATZEKO

Ardatz honetan azpimarratzen da ekonomiak eraldatzeko eta eskubide ekonomikoak eta sozialak gauzatzeko, beharrezkoa dela hiru lehentasun-ardotan jardutea: lan duina emakumeentzat, genero-ikuspegidun politika sozialak eta eskubideetan oinarritutako politika makroekonomikoak. Huru programa ditu: Berdintasuna gizartea eta ekonomia eraldatzeko beharrezko balioa dela aitortzea; Emakumeentzako autonomia ekonomikoa, besteak beste, enplegu hobea sortuz eta soldata arrakala murriztuz; eta Zaintzaren ekonomia feminista, zaintza lanak bizitzaren jasangarritasunerako beharrezkoak direla sozialki onartzeko.

EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIARIK GABEKO BIZITZAK

VII. Planaren bidez, politika eraginkorrak ezarri nahi dira, eta horrekin, erdigunean jarri nahi dira bizirik atera diren biktimak (emakumeak, seme alabak) eta indarkeriak haien bizitzetan dituen ondorioak. Ardatz honek hiru programa barne hartzen ditu: Sentsibilizazioa eta prebentzioa; Erakundeen arteko koordinazioa; eta Detekzioa, arreta eta berroneratzea, emakumeen aurkako indarkeriaren detekzio goiztiarra areagotzeko, biktimei arreta integrala bermatzeko, ahalduntzearen ikuspegitik

Plana egiteko prozesua

VII. Plana egiteko, partaidetzako prozesu ireki eta arautu bati jarraitu zaio 2017an zehar: hausnarketarako eta eztabaida politiko, tekniko eta sozialerako bideak eta uneak zabaldu dira. Prozesu horretan, garrantzi berezia izan du EAEko emakume-elkarteen mugimenduaren parte-hartzeak.

Beste programa esparru batzuekin parekatzea

VII. Planaren egitura helburuak erreferentziako esparru programatiko batzuekin parekatzeko nahiaren emaitza da: Garapen Jasangarriko 2030 Agenda (NBE), Europar Batasunaren Konpromiso Estrategikoa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako (2016-2019) eta Eusko Jaurlaritzaren XI. Legegintzaldiko Gobernu-programaren konpromisoak.

Lehendakaritza

EUSKO JAURLARITZAK 1,1 MILIOI EURO ZUZENDU DITU EUROPAKO MUGETAN LARRIALDI HUMANITARIOKO DEIEI ERANTZUTEN

- **Unean uneko premiazko inplikazio humanitarioa eskatzen duten egoerei berehalakoan eta bizkor arretea ematea da helburua**

Eusko Jaurlaritzak –Giza Eskubide, Bizikidetzeta eta Lankidetzaren Idazkaritza Nagusiaren bitartez– 1,1 milioi euro zuzendu ditu dagoeneko urte honetan Nazio Batuetatik edo nazioarteko eta Europako beste instituzio batzuetatik egin izan diren deiei erantzuteko, Europako mugetan errefuxiatuak jasaten ari diren krisiaren aurrean. Dei horietako batzuei erantzuteko laguntzak gaur onetsi dira Gobernu Kontseiluan.

Unean uneko premiazko inplikazio humanitarioa eskatzen duten egoerei berehalakoan eta bizkor arretea emateko euskal Exekutiboak hartua duen konpromisoari erantzuten dioten laguntzak dira, eta Europan nazioarteko babesaren bila dabiltzan pertsonen jasandako bidegabekeriei ere lotutakoak. Joan den urteko uztailean aurkeztutako esparru-dokumentuan sartzen diren diru-laguntzak dira, Euskadiko instituzio publikoen eta erakunde sozialen erantzun bateratu bat emateko Europako mugetan jasaten ari den krisi humanitarioari.

Testuinguru horretan, orain arte lau proiektutan lagundu du Gobernuak, guztira 1,1 milioi euroekin. Hauek dira:

- **Laguntza UNICEFi Serbiako errefuxiatuen eta migratzaileen krisiari erantzuteko. Diru-laguntza guztira: 200.000 €**

2016ko martxoan Balkanetako bidean mugak itxi arren, errefuxiatuak eta migratzaileak etengabe sartu dira Serbian. Orain, UNICEFek lanean dihardu bermatzeko haur errefuxiatu eta migratzaile guztiek –lagunduta, bananduta edo euren familiekin– babesa eta zaintza jaso, eta garatu eta gizarteratzeko zerbitzuetarako behar duten sarbide egokia eta ekitatiboa izan dezaten.

Euskadik lagundu egingo du 3.000 hurrek arretea psikosoziala jaso dezaten, 1.500 haur identifikatuak izan daitezzen arretea-zerbitzu espezializatuetara bideratzeko, eta 1.000 haur jaioberrik eta 5 urte baino gutxiagokoek amatasun-geletan sarbidea izan dezaten.

- **Laguntza Save The Children-i Balkanetako haur migratzaileak babesteko. Diru-laguntza guztira: 300.000 €**

Beste helburu batzuen artean, Euskadiren ekarpenak ahalbidetu egingo du haur errefuxiatuek, migratzaileek edo lekualdatzen doazenek kalitateko hezkuntza- eta babes-zerbitzu egokietara sarbidea izan dezaten, Belgradeko eta Bogovadjako harrera-zentroetan.

- **Laguntza ACNURi Libanoko errefuxiatuen populazio siriarrari babes eta laguntza emateko. Diru-laguntza guztira: 200.000 €**

Siriako gatazka zazpi urtez luzatzen ari da, eta Libanok, 6 milioi biztanlek osatutako populazioarekin, 1,5 milioi errefuxiatu siriarrak hartu ditu une honetan. Bertan, landa- eta hiri-eremuetan daude sakabanatuta.

ACNURen proiektua 109 familia errefuxiatu siriarrak (654 pertsona) eskudiruz hornitzean oinarritzen da funtsean, nazioarteko estandarren arabera dituzten oinarritzko premiak bete ditzaten. Eskudiruaren transferentzia modu duinetakotzat hartzen da populazio onuradunari laguntzeko; horrela, ahaldundu egiten zaie errefuxiatuei dituzten premiak zeintzuk diren eta premia horiek ondoen nola bete zehaztu dezaten.

- **Laguntza ILH - Itsas Laguntza Humanitarioari AitaMariZubia #MAYDAYTERRANEO 2018 proiekturako. Diru-laguntza guztira: 400.000 €**

Eusko Jaurlaritzak emandako laguntzak Greziako kostaldeetan ILH euskal GKE egiten ari den lana babesteko balio izango du, batik bat nazioarteko babes bila dabiltzan errefuxiatuak itsasoetan erreskatatzeko.

Aita Mari ontzia, erreskate-lanak egiteaz gain, ospitaleko materialez hornituta egongo da errefuxiatuek portuan egiten duten egonaldian osasun-laguntza jaso dezaten.

Ontzi berriak uda honetarako erabiltzeko moduan egotea espero da, eta abuztuaren hasieran nazioarteko uretara abiatzea, Libiako kostaldearen parera, herrialde horretan gerratik ihesi doazen pertsonen laguntzeko helburuz.

Aurten, *Maydayterraneo* proiektuak inguru horretan bost hilabetez egotea du aurreikusita; horrela 10 erreskate-misio egiteko aukera izango du, 100 inguru boluntarioren laguntzarekin.

Lehendakaritza

JAURLARITZAK ONARTU DU EUSKAL ETXEENTZAKO LAGUNTZA- DEIALDIA, 902.306 EURO EMANGO DITUENA

Eusko Jaurlaritzak bide eman dio Euskal Autonomia Erkidegotik kanpoko Euskal Etxeentzako eta euskal etheen federazioentzako eta konfederazioentzako diru-laguntzen aurtengo deialdiari. Diru-laguntza horiek Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiaren bidez banatzen ditu. Orotara, 902.306 euro bideratuko ditu laguntza horietara.

Laguntzaren zatirik handiena –782.306 euro– Euskal Etxeen urteko programak edo jarduera zehatzak laguntzera bideratuko da, nagusiki, gazteria, emakume, kanpo-irudi eta komunikazio, memoria historiko, gastu arrunt eta funtzionamenduaren arloko jardueretara.

Gainerakoa –120.000 euro zentroen beraien egoera hobetzera bideratutako jardueren gastuak osorik edo zati batean finantzatzera bideratuko da; esaterako, ezbeharrek eragindako kalteak konpontzeko, hesi arkitektonikoak kentzeko, euskal etxe berriak eraikitzeko, gazteentzako lekuak egokitzeko eta gazteen zein emakumeen jardueretan teknologia erabiltzeko.

Gaur onartu den deialdian parte hartu dezakete mundu osoko 25 herrialdetan dauden 191 euskal etxeek. Deialdia EHAAr argitaratzen den egunetik hasita, hilabete bateko epea egongo da eskaera egiteko.

Enplegua eta Gizarte Politikak

GOBERNU KONTSEILUAK 2018-2022RAKO FAMILIEI LAGUNTZA EMATEKO ERAKUNDEEN ARTEKO IV. PLANA ONETSI DU

Gobernu Kontseiluak gaur goizean 2018-2022rako Familiei Laguntza emateko Erakundeen arteko IV. Plana onetsi du. Beatriz Artolazabal Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburuak honela kalifikatu du: “Familia eta Haurren aldeko Euskal Ituna zabaltzeko eta gauzatzeko plangintza-tresna nagusia, pertsonak beren familia-proiektua hasi eta nahi beste seme-alaba izatea zailtzen duten oztipoak pixkanaka ezabatu edo murrizteko.

2018-2022rako Familiei Laguntza emateko Erakundeen arteko IV. Planak Europako erakundeek babestuta haurretan inbertitzeko ikuspegia gauzatzen du, eta, horretarako, ume eta nerabe guztien aukera-berdintasuna bermatzen duten neurriak antolatzen dira eta desberdintasunaren belaunaldien arteko transmisioa prebenitzen du eta, horrela, seme-alabak dituzten familien pobrezia-egoera murriztu.

Beatriz Artolazabalen hitzen arabera, Planak “% 20 murriztuko du haurren pobrezia-tasa, 25 eta 44 urte bitarteko biztanleen okupazio-tasa areagotuko du, % 80ra arte, EAEko emakumeen ugalkortasunaren egoeraren adierazlea 1,50era areagotuko du, % 25 igoko ditu 1 urteko umeen arteko eskolatzeko-tasa garbiak, gutxienez % 50 murriztuko du etxeko zaintzen arraila, eta 25 eta 29 urte bitarteko gazteen emantzipazio-tasa areagotuko du”.

Planaren garapenak ia 460 milioiko gastua aurreikusten du, 2018aren eta 2022aren artean, Gizarte Politiketako Sailburuordetzaren neurrietan, bereziki kontziliazioaren eremuan (286 milioi). Halaber, 785 milioi euro seme-alabak dituzten familientzako errentak bermatzeko politiketan eta gazteen enplegurako programetan. 220 milioi Haurreskolak Partzuergora, 250 milioi beketara, 50 milioi gazteentzako etxebizitza-politiketara, 1.575 zerga-kenkarietan ondorengoengatik eta 415 milioi gizarte-zerbitzuetara.

Konpromisoak

Artolazabal sailburuak zehaztu duen bezala, “2018-2022rako Familiei Laguntza emateko Erakundeen arteko IV. Planak gutxieneko baliabide ekonomikoak bermatzen dizkie seme-alabak dituzten familia guztiei, eta haur-pobrezia prebenituko du, eta horretarako familia-aniztasuna errespetatuko du eta erraztasunak emango ditu amek eta aitek beren seme-alabei beharrezko denbora eskaintzeko; horretarako, *gizarte-denboraren* antolaketa egokiagoa sustatuko du, familien beharrianak kontuan hartuta eta gizarte-antolaketa erantzunkidea bultzatuz”.

"Halaber, gazteen emantzipazioari ematen dio bide eta biritza-proiektu autonomoei, nahi badute ondorengoak izan nahi duten familia-unitate berriak eratzeko bide emateko; gurasotasun positiboko programak sendotzen ditu, haurren osasunekoak, gatazken prebentziokoak eta familia-bitartekaritzakoak, aita eta amen guraso- eta hezkuntza-gaitasunak sendotzeko; ohitura osasungarriak sustatuko ditu eta familietan egon daitezkeen gatazkak ebazteko bide emango du, eta ume guztiek haurrei arreta emateko zerbitzu eskuragarriak eta kalitatekoak jaso ahal izatea sustatuko du", esan du Artolazabal sailburuak.

Sailburuak aipatu dituen beste konpromiso batzuen bidez, "berbideratu egiten dira hezkuntza-politikak eta eskola-sistema inklusiboa eta baterako hezkuntzako eraikitzen sakontzen da, ekitatea bermatzeko eta desabantaila sozialean eta ekonomikoan dauden ikasleen zailtasunak konpentsatzeko gai dena, eta ume eta gazte guztiek baliabide eta gizarte eta hezkuntzako, kiroleko, kulturako eta aisiako ekipamenduen eskaintza zabalagora jotzeko duten aukera hobetzen du, baldintza-berdintasunean".

"Era berean –esan du Artolazabalek–, hobetu egiten du familia- eta haur-politiken gobernamentua, eta gizarte eta hezkuntzako espazio erreala garatzen du; erakundeen artean eta diziplina anitzetik lankidetzan jarduteko konpromisoa hartzen du, politika publikoen hainbat arlotan eragina duten gai horien dimentsio anitzaren izaera kontuan hartuta: genero-ikuspegia, hezkuntza, berdintasuna, osasuna, etxebizitza, gizarte-zerbitzuak, kultura, enplegua eta abar, eta sentsibilizatu egiten ditu gai horiekin lotuta dauden eragile pribatuak, bereziki lan-harremanetan zuzenean inplikaturik daudenak, besteak beste, sindikatuak eta elkarte patronalak, eragile publiko eta pribatuen arteko derrigorrezko lotura aintzat hartuta".

Hura prestatzeko, prozesu parte-hartzailea ezarri zen euskal erakunde publikoekin (Eusko Jaurlaritza, foru-aldundiak eta EUDEL) eta gizarte-erakunde eta -entitateekin, parte-hartze irekiaren bidez eta Familiaren Euskal Kontseiluan dituzten ordezkarien bidez.

Plana prestatzeko prozesua 2018ko otsailaren 9an hasi zen, Bilbon; horretarako, jardunaldi bat antolatu zen eta, bertan, adituek familia- eta haur-politikak aztertu zituzten. Jardunaldian eremu horietan lan egiten duten 200 pertsona baino gehiago izan ziren. Martxoan eta apirilean, alde biko bilerei ekin zitzaizkien berriro, Eusko Jaurlaritzan familiaren eta haurren arloan eskumen sektorialak dituzten sailekin, eta zenbait lan-bilera egin ziren foru-aldundi eta udalekin (EUDELen bitartez). 2018ko maiatzaren 15ean, Familien Nazioarteko Egunean, amaierako dokumentua aurkeztu zen Familiaren Euskal Kontseiluaren osoko bilkuran, eta onetsi egin zuen.

Egitura

IV. Plana bost ardatz nagusitan banatzen da, eta horiek bat datoz Familia eta Haurren aldeko Euskal Itunarekin: gazteen emantzipazioa eta familia berrien eraketa, berez helburutzat hartzen diren neurrian, baina baita *sine qua non* baldintza Euskadin jaiotza-tasak areagotzeko; kontziliazio erantzunkidea; orain

arte familia-planak zirenen nukleo zentrala eratzen zuten familientzako laguntza-politikak; haur eta nerabeen ongizatea, haur eta nerabeen bizibaldintzetan eragina duten eremu oso anitzetan helburu bereziak jasotzen dituen; eta familia- eta haur-politiken lidergoa eta gobernamendua, edozein zeharkako politikatan lehen mailako erronka eta beharrian direnak.

Bost ardatzak 18 helbururen bidez garatzen dira; guztira, 116 neurri dira eta, horietako bakoitzarentzat, enuntziatua zehazten da, edukia eta helburuak labur deskribatzen dira, eta gauzatzeko ardura izango duen administrazioaren maila adierazten da.

IV. Planak planteatutako neurrien eragin-adierazle batzuk jaso ditu, eta jarraipen- eta ebaluazio-sistema bat, bi une aurreikusten dituen: tarteko ebaluazioa, 2020an, familia, haur eta nerabeek Euskadin dituzten premia nagusiak diagnostikatzeko aukera ematen duten datuak eguneratzeko; Planean aurreikusitako jarduketaren betetze-maila eta haren eragina ebaluatzeko; eta jarduketak formulatzean aldaketak eta egokitzapenak proposatzeko (egindako ebaluazioak hala eskatzen badu); eta amaierako ebaluazioa, indarraldia amaituta, 2022an. Bertan, Planean aurreikusitako jarduketaren betetze-maila ebaluatuko da, bai eta eragina ere, eta Familiei Laguntza emateko Erakundearen arteko V. Planak aurreikusi beharko dituen jarduketarako oinarritzko printzipio eta ildoak proposatuko dira.

Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza

UDALERRIEN MAPAK ETA KALE IZENDEGIAK EGITEKO ETA GERO ZABALTZEKO LAGUNTZAK

Gobernu Kontseiluak oniritzia eman dio Iñaki Arriola Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitzako sailburuaren aginduari; horren bidez, Euskadiko udalei informazio geografikoa hobetzeko, udal-mapak egiteko eta gero zabaltzeko diru-laguntzak emateko deialdia egin da.

Laguntza-programa hori 200.000 eurokoa da eta helburu du udal-informazio geografikoaren kalitatea hobetzea eta, horretarako, interes orokorreko datuak bildu eta digitalizatzea eta web-orrialdeetan argitaratzea; hala ere, mapa, gero, paperean argitaratzea hautatu ahalko dute udalek.

Diru-laguntzen bidez, nolahi ere, udal-mugarteko mapa digitala egiteko gastuak ordainduko dira, alegia, mapa topografiko batean tradizioan adierazten diren elementu guztiak batu, berrikusi eta kokatzeko gastuak; gainera, gutxienez, toponimia, kale-izenak eta interes publikoko zerbitzuak, instalazioak eta hiri-elementuak barne.

Udal-webak informazio hori argitaratzeko erakundearen mapen bisorea erabiliko du edo, bestela, www.geo.euskadi.eus-en mapa-bisorea berrerabiliko du; hura Lurralde Plangintza, Hirigintza eta Hiri Berroneratze Zuzendaritzaren mende dago eta udal-webaren barruan kapsulatze gaitasuna du.

Ezingo dira diru-laguntza horren onuradun izan aurreko hiru ekitaldietako batean (2015, 2016 edo 2017) diru-laguntzaren esleipendun izan diren erakundeak, berriaz uko egin ezean. Eskabideak aurkezteko epea hilabetekoa izango da, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian agindua argitaratu eta biharamunetik aurrera.

Hezkuntza

DEKRETUA, URRUTIKO HEZKUNTZAKO EUSKAL INSTITUTUAREN ANTOLAMENDU, FUNTZIONAMENDU ETA AUTONOMIARI BURUZKOA

Gobernu Kontseiluak gaurko bileran onartu du, Hezkuntza sailburuaren proposamenez, Urrutiko Hezkuntzako Euskal Institutuaren (UHEI) egitura, antolaketa eta funtzionamendua arautzen dituen Dekretua. Era berean, Dekretu honek ezartzen du zer baldintzatan garatuko diren institutuaren antolaketa- eta pedagogia-autonomia eta kudeaketa ekonomikoaren autonomia, bai eta institutuak ebaluazioa zer-nola garatuko duen ere.

Gaur onartu den Dekretu berriak institutu bakarrean batzen ditu, UHEIn, egun Euskadin Helduen Oinarrizko Hezkuntzako, Batxilergoko eta Lanbide Heziketako urrutiko irakaskuntza eskaintzen duten zazpi institutuak, hala nola: hiru Lurralde Historikoetako Urrutiko Oinarrizko Hezkuntzarako Ikastetxeak (UOHI), hiru Lurralde Historikoetako Urrutiko Batxilergo Institutuak (UBI), eta Urrutiko Lanbide Heziketako Institutua (ULHI), guztiak ere Hezkuntza Sailaren menpeko ikastetxe publikoak.

Aipaturiko zazpi institutu publiko horiek institutu bakarra osatuko dute aurrerantzean, zuzendaritza talde bakarrarekin, eta antolaketa-egitura bateratuarekin. Dekretu berriak UHEIren funtzionamendua, antolaketa, autonomia eta funtzioak arautzen ditu.

Urrutiko Hezkuntzako Euskal Institutuak honako esparru hauetan jardungo du, beti ere urrutiko irakaskuntzan:

- Oinarrizko Hezkuntzako eta Batxilergoko irakaskuntzetan
- Lanbide-heziketako tituluei eta profesionaltasun-ziurtagiriei dagozkien irakaskuntzetan.
- Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako titulua eta Batxilergo nahiz Lanbide Heziketako titulua ateratzeko probak gainditzeko helduentzako prestaketa-ikastaroetan.
- Helduak heziketa-zikloetara edo unibertsitatara iristeko prestaketa-ikastaroetan.

Hezkuntza

250.000 EURO IKASTETXEETAN ANIZTASUNA LAGUNTZEKO BERARIAZKO PROGRAMATARAKO

Gobernu Kontseiluak gaurko bileran onartu du, Hezkuntza sailburuaren proposamenez, 2018-2019 ikasturtean aniztasuna laguntzeko berariazko programak garatzeko ohiz kanpoko diru-laguntzatarako deialdia egiten duen Agindua. Deialdi honek 250.000 euroko diru kopurua du.

Deialdi honen helburua da, aniztasuna laguntzeko berariazko programak prestatu, zuzendu eta kudeatzeko burutzen diren jarduerak diruz laguntzea. Jarduera horiek, ikastetxeetan ikasleen arteko kultura aniztasunari erantzuna emateko neurriak izan beharko dituzte. Diru-laguntza jaso dezaketen jarduera horien artean lekua izango dute irakasleen prestakuntzara zuzentzen direnek, eta baita ikasleekin garatzeko sortutakoek ere: irakaskuntza eta ikaskuntza prozesu inklusiborako metodologia eta estrategiak abian jartzea, tutoretzarekin loturiko ekintzak, atzerriko jatorria duten ikasleei harrera egiteko jarduerak, edo hizkuntza indartzeko irakasleekin ekintzak.

Deialdi honetara bideraturiko diru-kopurua, honela banatzen da: 150.000 euro Haur eta Lehen Hezkuntzarako, eta 100.000 euro Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza eta Oinarrizko Lanbide Heziketarako.

Deialdi hau aniztasunari arreta emateko indarrean dauden beste hainbat deialdiren osagarri da, hala nola: kulturartekotasuna dinamizatzeko programak, hizkuntza indartzeko programak, Hezkuntzan Berariaz Sendotzeko Programak, eta Curriculum-aniztasunaren bidez ikaskuntza eta errendimendua hobetzeko programak.

350.000 EURO IKASLEEN GURASO ELKARTEEN FEDERAZIO ETA KONFEDERAZIOEN LAGUNTZETARAKO

Gobernu Kontseiluak Hezkuntza sailburuaren proposamenez, unibertsitatez besteko ikasleen guraso elkarten Federazio eta Konfederazioentzako diru-laguntzatarako deia egiten duen Agindua onartu du. Deialdi honek 350.000 euroko diru kopurua du.

Laguntzak Federazio eta Konfederazioek beharrezko dituzten azpiegitura gastuei aurre egiteko emango dira, elkarten laguntza eta aholkularitza gastuei aurre egiteko, eta gurasoen formakuntza ekintzen gastuei aurre egiteko.

Ekintza hauek guztiek 2018an burutuak izan beharko dute. Laguntza hauen bidez gehienez ere aipaturiko jarduera horien %50 ordaindu ahal izango da.

Hezkuntza

800.000 EURO IRAKASLEAK EUSKALDUNTZEKO

Jaurlaritzaren Kontseiluak, Hezkuntza sailburuaren proposamenez, gaurko bilkuran onartu duen Aginduak deialdia zabaltzen du IRALE programako jardueretan, Hezkuntza Sailak zuzenean burutzen ez dituenetan, parte hartzeko.

Agindu honen helburua da irakasleak euskalduntzeko, alfabetatzeko eta hobetzeko programako (IRALE) jardueretan, Hezkuntza Sailak zuzenean burutzen ez dituenetan, parte hartzeko interesa duten erakundeei dei egitea. Jarduera horiek 2018ko udan eta 2018-2019 ikasturtean egingo direnak dira.

Jarduera horiek irakasleen hizkuntza gaitasuna lortzeko ikastaroak izango dira eta irakas-orduetatik kanpo emango dira. Deialdi honek 800.000 euroko diru kopurua du.

IRAKASLEEN FORMAZIORAKO JARDUERAK BURUTZEN DITUZTEN IRABAZI ASMORIK GABEKO ELKARTEENTZAT DIRU-LAGUNTZAK

Gobernu Kontseiluak Hezkuntza sailburuaren proposamenez onartu du, 2018an unibertsitatez besteko irakasleen etengabeko prestakuntzarako eta pedagogia nahiz didaktika eguneraketarako jarduerak burutzen dituzten irabazi asmorik gabeko erakundeentzat laguntzak arautzen dituen Agindua. Deialdi honek 100.000 euroko diru-kopurua du.

Diruz lagunduko diren jarduerak, ondorengo ekintza hauetakoren bat burutzera bideratuak izan beharko dira:

-Irakasleen etengabeko prestakuntzara bideratutako ekintzak, formazio ikastaroen edo ikastaro tekniko zientifikoek bidez, beti ere hezkuntza eremuko ikerketarekin, gai didaktiko eta pedagogikoak eguneratzearekin edo Prest_Gara Planak bultzatzen dituen jardunbideekin zerikusirik baldin badute.

-Irakasleen etengabeko prestakuntza arloko esperientzia-trukeei zabalkundea ematea asmo duten ekintzak, hala nola, bilkurak, kongresuak, jardunaldiak, praktika onen giden edizioa.

Diru-laguntza jasotzeko jarduerak 2017ko urriaren 1etik 2018ko irailaren 30era burutuak izan beharko dute. Deialdi hau Irakasleen Etengabeko Prestakuntzarako Prest_Gara Planaren baitan sartzen da. Diru-laguntza hauek jasotzeko eskubidetik kanpo gelditzen dira Hezkuntza Berriztatze Zuzendaritzak bultzatutako beste deialdiren batean laguntza jaso duten jarduerak.

Deialdi honetara eskaerak aurkezteko epea irailaren 14an amaituko da.

Turismo, Merkataritza eta Kontsumo

TMS PROGRAMAK 717.000 EURO BIDERATU DITU TURISMOA MERKATURATU ETA SUSTATZEKO LAGUNTZETARA

Turismoa Merkaturatu eta Sustatzeko TMS programaren helburua da produktu turistiko berriak eta turismoaren alorrean proiektio handia duten gertakariak diseinatu, abiarazi, sustatu eta merkaturatzea. Euskal Autonomia Erkidegoaren posizionatze turistikoa finkatzea du xede.

Ekitaldi honetan, TMS programara bideratutako aurrekontua 717.000 EURO da. Zenbateko hori zenbait laguntza-lerrotan banatuko da.

Programaren erakunde onuradunek ezarri beharreko helburuen artean dago ostatu-gauak eta gastu turistikoa areagotzeko bidea emango duten produktuak sortzea. Diruz lagundu ahal izango diren gertakarizat baloratuko dira, era berean, enpleguaren sustapena, espirtu ekintzailea eta berrikuntzaren kultura, enpresa berriei zuzendutako ekintza positiboaren bitartez.

Proiektuen balorazioan lehentasuna emango zaie Sailaren esperientzia-programen ildoekin bat datozen produktu turistikoek; bereziki, enogastronomiarekin, irtenaldiekin, ibilbideekin, bilerekin, euskal itsasertzarekin, naturarekin eta kulturarekin lotutakoei.

Erakunde onuradunak izango dira mikroenpresak, ETEak edo horien elkarteak, zerbitzu turistikoak eskaintzen dituztenak edo sektore turistikoan eragina dutenak; elkarte sektorialak, enpresa-erakunde publikoak eta irabazi-asmorik gabeko fundazio eta erakunde pribatuak, xede sozialaren barruan sustapen turistikoa dutenak; edota Euskal Autonomia Erkidegoan egiten diren Estatu barruko eta nazioarteko proiektio turistikoko gertakari kulturalak, gastronomikoak eta kiroltakoak antolatzen dituzten enpresak.

EHAAn iragarkia argitaratzeko epea 2018ko ekainaren 20a da, eta eskabideak hura argitaratu eta hurrengo hilabetean aurkeztu ahal izango dira.

Kultura eta Hizkuntza Politika

EUSKO JAURLARITZAK 204.000 EUROKO KONTU-SAIL BAT ONARTU DU GAURKO BILERAN GOI-MAILAKO KIROL LEHIAKETAK SUSTATZEKO

- **Laguntza-ildo honen bitartez, iaz 31 lehiaketaren antolakuntza babestu zuen Jaurlaritzak**

Gobernu Kontseiluak 204.000 euroko kontu-sail bat onartu du gaurko bileran, goi-mailako kirol-lehiaketen gauzatzea diruz laguntzeko 2018. urtean. Laguntza hauen bitartez, iaz Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak 31 kirol-lehiaketaren antolakuntza babestu zuen.

Laguntza hauen balizko hartzaileak ondokoak dira: kirol-federazioak, kirol-taldeak, kirol-elkarteak, kirol-xedea izan eta helbide soziala Euskal Autonomia Erkidegoan duten nortasun juridikoko entitateak eta erkidegoko tokiko entitateak. Kirol-lehiaketek honako baldintza hauek bete beharko dituzte diru-laguntzak jaso ahal izateko:

- Nazioarteko Federazio, Europako Federazio edo nazioarteko Liga Profesional bateko egutegi ofizialean sartuta egon behar dute.
- Mundu mailako lehiaketen kasuan, bi kontinenteko edo gehiagoko kirolariak parte hartu beharko dute.
- Bi herrialdetako edo gehiagoko kirolariak izan beharko dituzte lehiaketa guztiek.
- Zirkuitu edo liga formatua duten lehiaketen kasuan, bi herrialdetan edo gehiagotan antolatu beharko dira lehiaketak.
- Estatu- edo erkidego-mailako lehiaketak ez dira aintzat hartuko.

Laguntza-ildo honen bitartez iaz diruz lagundutako 31 lehiaketen artean ondokoak daude: Igorre-Euskadi Basque Country Ziklo-krosa, Zornotzako Nazioarteko Krosa, Emakumeen Bira, Juan Muguerza Nazioarteko Krosa, txirrindularitzako Ricardo Otxoa Memoriala edo Zegama-Aizkorri Mendi Maratoia.

Kultura eta Hizkuntza Politika

EUSKO JAURLAITZAK BI DIRU-LAGUNTZA ONARTU DITU ERROTA FUNDAZIOA ETA KONTSEILUA ENTITATEEN BITARTEZ EUSKARA LAN-MUNDUAN SUSTATZEKO

- **Bi proiektu sustatuko dira; lehenengoa, Arratia bailarako enpresetan euskararen erabilera bultzatzeko; bigarrena, Euskaragileak ekimena sustatzeko**

Eusko Jaurlaritzako Gobernu Kontseiluak bi diru-laguntza zuzen onartu ditu Errota Fundazioarentzat eta Kontseiluarentzat, euskara lan-munduan sustatzea helburu duten proiektuak laguntzeko. Lehendabiziko proiektuari dagokienez, 29.640 euro onartu dira Arratia bailarako enpresetan euskara garatzeko. Bigarrenaren kasuan, Kontseiluak 24.580 euro jasoko ditu Euskaragileak programaren bitartez euskararen aldeko apustua egin duten enpresen eredia hedatzeko.

Lehenengo diru-laguntzari lotuta, Errota Fundazioak 'Arratian euskararen garapena lan-munduan' izeneko programa sustatuko du 2018-2019an. Fundazioaren interes orokorreko helburuetako bat da Arratiako ingurune sozio-ekonomikoa dinamizatzea, "ingurumenaren jasangarritasuna, lankidetzeta, kultura edota hizkuntza funtsezko balore bezala hartuta".

Egitasmo hau Errota Arratiako garapen sozio-ekonomikorako Fundazioak bideratuko du eskualdeko udalekin (Arantzazu, Areatza, Artea, Bedia, Dima, Igorre, Lemoa eta Zeanuri), Bizkaiko Foru Aldundiarekin eta Eusko Jaurlaritzarekin. Programak, guztira, 72 enpresari eta 3.871 langileri eragingo die. Arratiako enpresa ertain-handiekin lan egiteko hizkuntza-aholkularitza zerbitzu batek garatuko du proiektua. Zerbitzu hori bi urte naturalerako izango da, 2018-2019.

Bigarren diru-laguntzaren bitartez Kontseiluak Euskaragileak programa garatuko du 2018an. Egitasmoan parte hartuko dute Euskaragileak Enpresen Batzordea osatzen duten enpresek eta euskararen kudeaketan maila aurreratuan dauden beste hainbat enpresek. Ekimen honetan bi enpresa mota izango dira. Batetik, euskararen alde egin duten apustuagatik eredu izango diren enpresak daude; bestetik, eredu hori ezagutzera joango diren enpresak daude (bi multzotan banatuta: euskara-planak dituztenak eta planik ez dutenak).

Presidencia

EL GOBIERNO APRUEBA LA NUEVA HOJA DE RUTA DE LAS INSTITUCIONES VASCAS EN IGUALDAD DE MUJERES Y HOMBRES

- **El plan incorpora un eje dedicado a la transformación de las economías y la organización social con objetivos como más y mejor empleo para las mujeres y reconocimiento social de los cuidados**
- **Es el documento que marca los objetivos de igualdad a los que deberán aspirar los planes de acción de los departamentos del Gobierno, las diputaciones y los ayuntamientos**

El Consejo de Gobierno ha aprobado hoy el VII Plan para la Igualdad de Mujeres y hombres, el documento que tiene como objetivo orientar la actividad de los poderes públicos vascos en materia de igualdad. El plan constituye uno de los 15 planes estratégicos señalados por el Programa de Gobierno para la XI legislatura y su elaboración responde a un mandato de carácter legal establecido por la Ley 4/2005, de 18 de febrero, para la Igualdad de Mujeres y Hombres, en la que se establece la elaboración de un Plan de Igualdad en cada legislatura y que el Gobierno Vasco debe aprobar.

La finalidad del VII Plan para la Igualdad de Mujeres y Hombres es orientar a los poderes públicos para que su actuación contribuya a cambiar los valores que sostienen y justifican la subordinación de las mujeres y de lo femenino en todos los ámbitos de la vida consolidando nuevos valores que no estén atravesados por el androcentrismo, el sexismo y el machismo.

El VII Plan para la igualdad de mujeres y hombres se estructura en cuatro ámbitos de intervención, 13 programas, 37 objetivos estratégicos y 150 objetivos operativos.

Entre los ámbitos de intervención se encuentran Buen Gobierno (a través del que se refuerza la gobernanza para la igualdad), Empoderamiento de las mujeres (con el foco en el empoderamiento personal y colectivo y su participación política y social), Transformación de las economías y organización social para garantizar derechos (referido a más y mejor empleo para las mujeres y el reconocimiento social de los cuidados), y, finalmente, Vidas libres de violencia contra las mujeres (con programas de prevención y de atención y recuperación de las mujeres supervivientes a la violencia).

BUEN GOBIERNO

Presenta 15 objetivos, organizados en 5 programas: Compromiso político, impulsando los recursos más estratégicos para la igualdad como son, la normativa y la planificación y los recursos económicos y personales para impulsar la igualdad; Capacitación para la igualdad, para que todo el personal,

de las administraciones públicas, incluido el político, tenga los conocimientos suficientes para incorporar el enfoque de género en su intervención; Enfoque de género en los procedimientos de trabajo, como en planes sectoriales, normas, contratos y subvenciones, estadísticas, proceso selectivos...; Coordinación y colaboración, para que la igualdad se aborde transversalmente en todos los niveles y áreas de la administración pública; Participación e incidencia, para que la voz de la ciudadanía, especialmente la de las mujeres, esté presente en el diseño de las políticas públicas.

EMPODERAMIENTO DE LAS MUJERES

El VII Plan, siguiendo la línea de trabajo implementada en el VI Plan, busca contribuir al empoderamiento de las mujeres a través de dos programas: Apoyo al empoderamiento personal y colectivo de las mujeres reforzando e impulsando su papel y el del feminismo para el desarrollo humano sostenible; la conciencia de género, autoestima y autonomía de las mujeres; el autocuidado y salud de las mujeres en todas las edades; y la mejora de los recursos; y apoyo al empoderamiento social y político de las mujeres reforzando e impulsando la igualdad desde los movimientos sociales y ciudadanos, la participación social de las mujeres en todos los ámbitos y espacios y la presencia e incidencia de las mujeres en los ámbitos de decisión y dirección.

TRANSFORMAR LAS ECONOMÍAS Y LA ORGANIZACIÓN SOCIAL PARA GARANTIZAR DERECHOS

Es el ámbito del plan que contempla una mayor modificación conceptual y sustancial, un eje que profundiza en las dimensiones sociales y económicas de la igualdad de mujeres y hombres. Contempla tres programas: Reconocimiento de la igualdad como valor necesario para la transformación social y económica, en busca de una cultura organizativa y empresarial alineada con la igualdad; Autonomía económica de las mujeres, para, entre otros objetivos, crear mejores empleos y reducir la brecha salarial de género.; La economía feminista de los cuidados, para reconocer socialmente los cuidados como condición indispensable para la sostenibilidad de la vida y apoyando una nueva organización social de los cuidados que redistribuya su provisión.

VIDAS LIBRE DE VIOLENCIA CONTRA LAS MUJERES

